

Lekuona ta Lertxundi-ren diska berriak



—Ainbeste itxurrotako diska laister izango al dugu bezaz Jlian?

—Bai, Herri Gogoa'koaren asmoa da Gabon egunetarako prest izatea; bai nerea ta berdin Lertxundi'renak. Egun gutxitxo ote diran bitarte onetan dut bildur, baina guk gurea osatzeko prest goaz.

—Ze kantatzeko asmotan gera?

—Baimenduak izan ditudan iru abestiak: Aleluia, Errege Baltaxarren balada ta Txokeko autotan. Gabon eguneri ondo datorkien diska bati zango dala uste dut.

Julian Lekuona'rekin izketan ari naizen bitartean, Lertxundi alboan dituan Oskarbi'ko iri abeslari-rikin ari da trufaz. Aurrean duten egazkiñarekin ez dirala gelegi piyo dirudi. Ordulariari naiz begiratzen dio, ez dakit lenbaiten Bartzelonaruntz abiatu nai dualako izango ote dan, edo ta tresna kaxkar ortan satzeko ordua nai baiño azkarrago datarrelako.

—Zer diogu Benito?

—Demontre ori, Bartzelonan gelditua sumatzen dutanean a ze lasaitazuna izango dutan. Bein da berriz egazkin onetuzte ibilia naiz, bainan ez dut konpianza gelegi.

—Ez aldira nerbioak izango?

—Bai, orrelako pixka bat ere izan ditek. Gauza asko grabatzeko asmotan noa, ta oildurra ere bai ia gauzak noa aterako diran. Jendearen arreta onari erantzutea gero ta zallagoa da.

—Diska bat baiño gelago egitekotan al goaz ba?

—Bai, iru diska osatzeko aña abesti grabatuko ditut.

—Ze eratakoak izango dira?

—Bat kantu zaarrakin osatua, ta beste biak gaur eguneko abestiek. Zerbait itxurazkoa egin naian goaz, ta Jainkoak lagun gure Erriak laister esango du ala diran ala ez.

Oskarbi'koak ere diskaren bat egitera ote zijuazten jakin nai izan degu, eta bai berak erantzun ere.

—Gue ere abestera goaz bai, bitinan ez Oskarbi'ren diska bat;



ori geroago izango da, osaturak baimena ematen duan garaian. Oraingo onetan Lertxundi'ri laguntza emateko asmotan goaz, era bat gurea egitera joatearako grabazio estudioetako martingalak ikasten joango gera.

—Zuena laister izango al da?

—Guk nai baino beranduago nola nai, bainan laister izango dala uste dugu. Len esan bezela abesti sail bat censura'ra bialiak ditugu, ta erantzuna izan bezin azkar grabazioak egiteko prest gera.

Oskarbi'ko diska batek zeñen arrera ona izango lukean mintzatu gira, orain artean ez da bat bere agertu, ta bakarrak edo «Ez dok amairu» taldekoakin erri-erri dabilzanean, entzunleak txalorik beroenak eskeintzen dizkie. Beren abestiak itz ategiñaz galñera, ba dute zerbait gure Erriak onartzen duena. Orregatik Herri Gogoa'koari eskertuko genioke talde onen diska alik eta azkarrena gure eskuetan jarriko ba lu.

—Joan dan igandean Vera'n kantatutako abesti berriak grabatu bear al dituzu Benito?

—Denak joango dira diska berri auetan. Abesti zaarren diska oso polita izango dala uste dut, itxaropen aundia dut onengan. «Ekaitza» da beste abesti bat benetan maite dutana, ta kantatu dutan leku, guzietan asko gustatu dana, orain orkestarekin ia suerte pixka bat dutan eta gauz polita ateratzen dan.

Orkestra aitatzean gogoratu dut, nola Herri Gogoa'ren kezka dan alik eta euskal giro geiena ematea diska auri, ta berak agertu digute ori gerta dedin, oraingo onetan abestiak emen armonizatuak izan dirala. Gure Erriko bi musikaritari trebek osatu dute lan ori, Lekuonarenak Altuna jaunak, eta Lertxundi'renak Urbietak egin ditu.



Jatorra iruditzen zaigu jokaera au, ta pozitutzen gera benetan euskal diskak bide onetik dijoatzela ikustean.

Egazkiñera igotzeko deia egin diote, ta bad oaz gure abeslariak beren eginkizuna betetzera. Bostekoa emanaz agurtu ditut, adur ona opatuaz ta berririk onenak laister emateko eskatuaz.

JOSEBA

SOBERANO

Ai... ta alako gizonentzat, ala ere!



GONZALEZ BYASS

BAI, EDARI APARTAI

IHS OSBRO

Extitxu Venezuela ta Mexikora

Bilbaoko Gredos kafetegian zenbait jende bildu zan gauze Estixu agurtzeko. Estixu Venezuelara ta Mexikora dioa, TV-k kontratatua. Agurtzera, senitarteko, adiskide, bertoko prentsaren ta Madridedokoen erreprentantzale, irrati ta TV'koak, CINS'A'koak eta Las Arenasko Jai-Batzordekoak etorri ziran. Isil xamarrean egin da agurraldi hau, uste baino lehenago gertatu dalako TV'ren kontratua.

Gau bertan eman zioten Atxa ta Elorriaga jaunek Abrako Lehenengo Jialdiaren zillarezko medalla.

ESTITXUK, bere aldetik, bere kantu aukeratuenen saio bat eskeini zuan. Hauetako batzuetan bere aizepek lagundu zioten. Hain zuzen aizpa hoiak «Familia Trapp bilbaina» taldea osatzen dute.

Agurraldiari azkena emateko, brindis bat egin zan, ibilaldi on bat egin ta Ameriketako lurralde urruti haletan gure mandatua zabal zezan opatuaz.

JOAN MARI TORREALDAY

Arrigarrizko Salmenta!!!

Lekua berritzeagatik

Lo-gela osoak illen 500 pezetatik gora. Irukoitzak, sofa-ogeak, besaulkiak, abar...

Guzia erdi prezioan
Amuebladora Comercial
Hispania, S. L.

Moraza, 3
SAN SEBASTIAN

San Marcial, 12
IRUN